



UDALBILTZA

KONTSEILU NAGUSIA

UDALBILTZAKO PARTZUERGOAREN OHIKO KONTSEILU NAGUSIA. 2021ko AZAROAren 11an EGINDAKO BILERAREN AKTA

0. LABURPENA

1. Aurreko Kontseilu Nagusiaren aktaren onarpena
2. Lehendakariaren ebazpenak
3. 2020ko urtearen kitapenak: Partzuergokoa eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoko kontuen onarpena (atxikita doaz kontu-hartzailearen txostenak).
4. Kuotak
5. Hartu eman aholkularitza
6. Lurgida. Zer egin atala.
7. Soldata igoeren onarpena
8. Galderak eta iradokizunak

Bilera Udalbiltzaren bideokonferentzia sistemaren bitartez burutu zen, bi mila eta hogeitabateko azaroaren 11an, arratsaldeko 17:00etan, bigarren deialdian eta parte hartu zuten azpian zerrendatuko diren udalerrietako ordezkariak.

	UDALA
1	Aduna
2	Aizarnazabal
3	Alegia
4	Altzo
5	Amoroto
6	Antzuola
7	Arakaldo
8	Areso
9	Asteasu



10	Astigarraga
11	Bera
12	Berastegi
13	Berriatua
14	Ea
15	Errigoiti
16	Etxarri Aranaz
17	Gatika
18	Getaria
19	Hernani
20	Ibarra
21	Legorreta
22	Munitibar
23	Oiartzun
24	Ondarroa
25	Segura
26	Usurbil
27	Zaldibia
28	Zestoa

Ez zuten parte hartu udalerrri hauek: Ajangiz, Anoeta, Araitz, Aramaio, Arantza, Arbizu, Arratzu, Artea, Ataun, Atxondo, Aulesti, Bakaiku, Barrundia, Basaburua, Berrobi, Dima, Elduain, Etxalar, Etxauri, Ezkio, Gaztelu, Goizueta, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Larrabetzu, Leaburu-Txarama, Legutio, Leitza, Lezo, Lizartza, Mañaria, Markina, Meñaka, Mendaro Muxika, Olazti, Oñati, Orendain, Orexa, Otxandio, Uharte-Arakil, Urdiain, Zerain, Ziordia, Ziortza Bolibar, Zizurkil.

Jabier Asurmendi Udalbiltza Partzuergoaren lehendakari eta zuzendari jaunak zuzendu du bilkura.

Udalbiltzako teknikari hauek hitzarekin baina botoa emateko eskubiderik gabe parte hartu dute: Arkaitz Almorza jaunak, eta Ainara Iraeta andereak.



Era berean, parte hartu du Gorka Ojangurenak Udalbiltza Partzuergoko idazkari kontu-hartzaile moduan.

Quoruma dagoela ziurtatzean, hasiera eman zaio bilerari, honako edukiak landuz:

LEHENA.- Aurreko aktaren onarpena

Jabier Asurmendi Lehendakariak egin du puntu honen azalpena.

Zuzenketa edo ekarpenik proposatu ez denez, aurreko Kontseilu Nagusiaren bilkuraren akta onetsi da gehiengo osoz. Astigarraga eta Ibarra abstenitu egin dira eta Antzuolak ezezkoa bozkatu du. Gainerakoek aldeko bozka eman dute.

BIGARRENA.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman

Gorka Ojanguren idazkariak, azkeneko Kontseilu Nagusiaz geroztik emandako ebazpenen laburpena jasotzen duen zerrenda emailez bidali zela gogorarazi du. Ondoren, gastuen onarpena ez diren gainerako ebazpenen esanguratsuenak azaldu ditu, hala nola:

- 7/2021 LE: Arkaitzen lanaldi murrizketa. Langileen Estatutuaren 23. b) artikulua arabera, langilearen eskubidea da titulu akademiko edo profesional bat lortzeko edo ikastaroetara joateko bere lanaldi arrunta egokitzea

Partzuergoaren Nafarroako teknikaria den ARKAITZ AMORTZA MURO jaunaren master ikasketetako praktikaldi garaia zela eta, ezinbestekoa ikusi zen bere jardunaren ehunekoa murriztea. Hori dela eta, kontratua 2021/03/09tik aurrera, %100etik %25era murriztea erabaki zen.

- 13/2021 LE: Behin betiko ebazpena, herrien esleipena. Geuretik Sortuak kultur proiektuko partaide diren herrien iritzia jasota eta behin behineko onuradunen



zerrendan aipatutako epean alegaziorik egin ez denez, onuradunak diren kulturgileei herriak esleitzea jarraian jasotzen den zerrendan:

DIZIPLINA	IZENA	HERRIA
LITERATURA	Bertol Arrieta Cortajarena	ZUIA
	Danel Lauzirika Erkiaga	ZESTOA
	Eduardo Jimenez Ormaechea	UZTARITZE
	Adolfo Bornaecha Rodriguez	ZUMAIA
	Garazi Albizua Castelao	LEITZA
	Iban Garro Alzuri	UREPELE
	Iñaki Martiarena Otxotorena	ARAITZ, BETELU, LARRAUN
	Itxaro Borda	USURBIL
	Maialen Akizu Bidegain	AMASA-VILLABONA
	Maitane Perez Argote	LODOSA, SARTAGUDA, MENDABIA, ANDOSILLA
	Nahia Zubeldia	LARRABETZU
	Nefer Olaizola Balboa	LIGI-ATHEREI, LIGINAGA-ASTÜE, LEXANTZÜ-ZUNHARRRE, ETXEBARRE
	Peru Calabaza Saban	ZALDIBIA
	Sarai Robles Vitas	ONDARROA, BERRIATUA
	Ugaitz Agirre Zapirain	ARTZINIEGA
Yolanda Arrieta Malaxechevarria	ETXARRI-ARANATZ	
ANTZERKIA	Bonbon noir et Crotte de bique	OÑATI
	Maialen Diaz Urriza	OIARTZUN



	Metrokoadroka Kultur Elkartea	UHARTE, ATARRABIA
	Oier Zuñiga Perez de Urabain	BERGARA
	Tanttaka Teatroa S.L.	ARRIGORRIAGA

ZINEMA	Bira Koop Elkarte txikia	GALDAKAO
	Eñaut Castagnet	BERA, LESAKA
	Kamikaz Kolektiboa	TAFALLA
	Josu Martinez Martinez	BAIGORRI
	Raul Barreras Canales	HERNANI

- 19/2021LE: Kreditu gaikuntza. UDALBILTZA PARTZUERGOAren 2021eko aurrekontuetako sarreretan lau partida aurreikusten ziren, guztiak sarrerren egoera- orriaren 4. kapituluan (transferentzia eta diru-laguntza arruntak): diputazioak (2.416.01.00), partzuergokide kuotak (2.417.01.01), beste toki entitateak lankidetzaz hitzarmenak (2.417.01.02) eta Geuretik Sortuak hitzarmenak (2.417.01.03).

Aurrekontuaren gauzapekin aurrera egin ahala, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2016an irabazitako auziaren judizio kostuak itzularaziko ditu, eta, hortaz, sarrera partida berri baten beharra ikusi da. Hala, partida berri bat sortuko da 4. kapituluan: Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko batzuk, 2.419.01.00 kodearekin.

Sarrera horrekin, auzian defentsa juridikoa egin zuen Joseba Compains Silva abokatuari eta German Ors Simon prokuradoreari ordainduko zaie. Beraz, ekarpen finalista izango du eta zuzenean txertatuko da gastuen 2. kapituluko (Ondasun arruntak eta zerbitzuen erosketak) 1.226.04 kontu sailean (Gastu juridikoak).



- 46/2021 LE: Idazkari-Kontuhartzaile berriaren izendapena. 2021eko uztailaren 16an Udalbiltza Partzuergoko Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko zela aurreikusiz, Udalbiltza Partzuergoko zuzendaritzak, lan eskaintza luzatzea erabaki zuen aurrez lanpostu hori betetzeko eratuta zegoen lan poltsako hautagaien artean, interesa izan zezaketen pertsonen haien eskabidea aurkeztu zezaten. Interesa azaltzen ez zuten hautagaiak aldi baterako bajan geldituko lirateke eta interesdunekin zerrenda berri bat egingo litzateke. Jasotako erantzunen arabera zerrenda berri bat egin zen.

Zerrenda berri honetan, 7 pertsona gelditu ziren Lanerako prest egoeran edo hautagai moduan eta beste 8 pertsona aldi baterako bajan gelditu ziren.

2021eko uztailaren 22an, ordurarte Udalbiltza Partzuergoko idazkari-kontuhartzaile lanetan aritu zen MARTIN OTEIZA LASAGABASTER jaunak bere funtzioak betetzeari uzteko erabakia hartu zuela zehazten duen gutuna helarazi zion Udalbiltza Partzuergoko Lehendakariari.

2021eko uztailaren 26an, zerrenda honetan “ Lanerako prest ” zeuden hautagaiei deitu zitzaaien, horien artean, GORKA OJANGUREN TORRES izan zelarik lanpostua onartu zuen lehena, ondorengo baldintzekin:

- Lanaldia erdia, lan hitzarmenaren arabera.
- Idazkari-Kontuhartzaile berezko funtzioak bete beharko ditu
- Soldata lan hitzarmenaren arabera izango da.

HIRUGARRENA.- 2020ko urtearen kitapenak: Partzuergokoa eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoko kontuen onarpena

Bilerarako bidalitako dokumentazioaren artean zeuden kontu-hartzailearen txostenen gainean egin da puntu honen azalpena.



Alde batetik, 2020ko Partzuergoaren kitapenari dagokionez, 459.600,00 euroko sarrerak eta 362.342,53 euroko irteerak izan dira, haietatik obligazioen %97,25a (346.943,34 euro) ordaindu da eta kobraketei dagokionez, %84,25a (387.200,00 euro) kobratu da, 97.757,47 euroko emaitza positiboa izanik. Hala bada, aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira 430.335,93 eurokoa da.

Gorka Ojanguren jaunak azaldu duenez, aurtengo aurrekontuaren eta gastatu denaren arteko aldea aztertzean, desbideraketa handiena, I. kapituluan edo pertsonal gastuetan dagoela ikusten da. Aurreikusi baino diru gutxiago gastatu da eta hiru arrazoi nagusi aipatu daitezke:

Batetik, 2020, urtean zehar, idazkari kontu-hartzailea, azaroan hasi zen lanean, beraz, ia urte osoan zehar gastu hori ez da eduki.

Bestetik, Komunikazio eta gaur egun, Kultura teknikaria dena, irailean hasi zen lanean. Hasiera batean, jardun murriztuan hasi zen eta ondoren jarduna osatu zitzaien, Kultur Teknikari funtzioak ere bere gain hartuaz.

Azkenik, gaur egun, Ipar Euskal Herriko teknikaria dena, 2020ko ekainean hasi zen lanean jardun erdian. Halaber, kontratazio honi dagokion gastua, Ipar Euskal Herriko Elkartearen bitartez bideratu da.

Beraz, hasiera batean, lanpostu hauetarako aurreikusiak zeuden gastuak ez dira bete bere osotasunean.

Euskal Garapen eta Kohesioa Fondoari dagokionez, gastuetan, aurreikusitako obligazioen %37,21a (18.246,00 euro) baino ez da gauzatu. Diru-sarreretan, % 100a (49.039,91,00 euro) gauzatu da. Horietatik, obligazioen %100,00a (18.246,00 euro) ordaindu da eta kobraketen, % 81,57a (40.000,00 euro) kobratu da.



Udalbiltza Partzuergoaren eta Euskal Garapen eta Kohesioa Fondoaren kontuak azaldu ondoren, beraien onarpena bozkatu da eta gehiengo osoz onartuak izan dira. Gatika, abstenitu egin da eta gainerakoek aldeko bozka eman dute.

LAUGARRENA.- Kuotak

Jabier Asurmendi jaunak, Udalbiltza Partzuergoko lehendakariak egiten du puntu honen azalpena. Aurreko Kontseilu Nagusian kuoten inguruk lanketa bat egiteko konpromezua hartu zen. Honen harira, kalkulu desberdinak egiten aritu gara, formula desberdinak planteatuz:

- 1) kuota biztanle kopuruaren arabera
- 2) Udalbiltza Partzuergoaren gastu finkoa edo azpiegitura minimoa mantentzeko beharko liratekeen kuotak kontuan hartuaz egindako kalkulua

Bi formula hauek erabilia ere, ez da asko aldatzen udalerrri bakoitzak jarri beharreko kopurua. Kasu puntual batzuk badaude, baina orokorrean, desbideraketa ez da handia.

Bestalde, kontutan hartua Udalbiltzaren eraldaketaren inguruan gogoeta bat egiten ari dela eta zentzu honetan, aurrerapauso batzuk ematen ari dela eta bere garaian kuoten inguruko lanketa sakona egin zela, Batzorde Eragiletik egiten den proposamena, orain arteko kuota sistema mantentzea da.

Proposamenaren bozkaketa egiten da eta gehiengo osoz onartzen da. Gatika abstenitu egin da eta Zestoak, ezezko bozkatu du. Gainerakoek aldeko bozka eman dute.

BOSGARRENA.- Hartu eman aholkularitza

Jabier Asurmendi Lehendakari jaunak gogorarazten du zerbitzu hau martxan dagoela. Udalbiltzatik, doako aholkularitza bat jarri zen partzuergokideen eskura udalgintza



eraldatzaile eta burujabetza proiektuak garatzeko. Horrez gain, gainontzeko hautetsi eta udalentsat kontsultak arinak egiteko aukera dago. Aholkularitza hau gauzatzeko, sare bat osatzen ari da Udalbiltza inteligentzia desberdinekin (Hiritik AT, Goiener, Izarkom, Olatukoop...). Momentuz, 3 lanketa garatzen ari dira:

- 1) Amoroto, Energia Burujabetzaren ingurukoa
- 2) Leitzan, Elikadura Burujabetzaren ingurukoa
- 3) Errigoitin, Teknologia Burujabetzaren ingurukoa

Lan ildoei dagokionez, 16-17 lan ildo banatu dira Udalbiltzako teknikarien artean. Teknikari hauek ez dira adituak izango. Horretarako esan bezala, kanpo inteligentziekin hitzarmenak egiten ari gara. Teknikarien lana, udalekin harremanak estutzea eta era honetako proiektuak garatzeko erreferentziazko pertsona bihurtzea izango da aholku egokiak emateko.

SEIGARRENA.- Lurgida. Zer egin atala.

Jabier Asurmendi, lehendakari jaunak aipatzen du Lurgidan, herrien fitxaren barnean, atal berri bat ireki dugula, "Zer egin" atala hain zuzen.

Herrietara sartzen garenean, herri horretan egiteko dauden aukera desberdinak ikusiko ditugu (ibilbideak, ekintzak, bisitak...). Ibilbide bat egin nahi den kasuetan adibidez, aukera dago track-a edo PDF-a jaisteko.

Bide batez, Lehendakari jaunak, Batzorde Eragileko kideei gonbidapena luzatzen die beraien herrietako ekimen eta ibilbideak guri bidaltzeko, guk txertatu ahal izateko.

ZAZPIGARRENA.- Soldata igoeren onarpena

Partzuergoko Idazkaria den Gorka Ojanguren jaunak egin du puntu honen azalpena. Espainiar Estatuko Aurrekontu Orokorren legearen, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan,



2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die. Bertan ezartzen da zerbitzu publikoan lan egiten duten langileen soldata igoera gehienez ere % 0,9koa izango dela, 2020ko abenduan indarrean zeudenekiko. Erreferentzia moduan, Eudel-en gai honen inguruko zirkular bat eta Gobernantza Departamentuaren ebazpen bat kontutan hartzen dira. Bietan, % 0,9ko soldata igoera proposatzen da sektore publikoko langileentzat.

Ondorioz, eta aurretik esandakoa kontutan hartuz, % 0,9ko igoera proposatzen da, Udalbiltza Partzuergoko langileentzat.

Gaia bozketara jarrita, proposamena onartzen da gehiengo osoz. Gatikak ezezkoa bozkatu du eta gainerakoek aldeko bozka eman dute.

HAMARGARRENA.- Galderak eta Iradokizunak

Ez da galderarik egon. Lehendakariak bertaratutakoei eskerrak eman eta dizkie eta gogorarazten die datorren azaroaren 13an Energia Mintegiak antolatu dituela Udalbiltzak. Izen ematea oso ondo joan dela aipatzen du eta gonbidapena luzatzen die parte hartzeko.

Bestalde EH kom proiektuaren garapenaren azalpen laburra egiten du: EH kom-ek kooperatiba forma izango luke, bertan, udalak, operadoreak, bazkide langileak eta bazkide laguntzaileak egongo lirakekeelarik. Bere planteamendua, herrietako eta Euskal Herriko internet sarea, era publiko komunitario batean kudeatzea. Oso ekimen interesagarria da eta gainera, esparru honetan, aitzindaria izango dela uste da. Proiektuaren aurkezpena, pasa den ostiralean egin zen Hernanin, eta harrera ona izan du parte hartu duten udalen aldetik. Asmoa, ekimena martxan jartzen denean, Udalbiltzatik atera eta modu autonomo batean funtzionatzea izango litzateke, Udalbiltza , bazkide laguntzaile hutsa bihurtuz.



Gai honi buruzko informazioa, datozen asteetan zabalduko da interesa azaltzen duten udalen artean.

Beraz, eta deialdi honen helburua bete delarik, Lehendakariak batzarraldia amaitutzat ematen du, arratsaldeko seiak laurden gutxi direnean, nik Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

Gorka Ojanguren Torres

UDALBILTZA PARTZUERGOKO IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA



UDALBILTZA